





FUNTSEZKO ELKARTEAK

Lehenik eta behin, gure aplikazioak funtziona dezan beharrezkoak diren **hornitzaile eta bazkideak** aurreikusi behar ditugu. Alde batetik, hornitzaileekin edota, gure enpresaren kasuan, elkarrekin harremana edukitzea ezinbesteko da, helburu berdinak ditugunez elkarrekin lan egiteko eta emaitza sozial zein ekonomiko hobeak lortzeko.

Horretarako, **Euskal Herriko osasun mentalaren elkarte eta ospitaleekin** egingo genuke lan, eta hauekin batera, osasun mentalaren inguruko hitzaldiak eman ahalko genituzke, eskoletan edota prebentzio gunetan. Horretaz gain, beren ezagutzaz baliatu ahalko ginatete proiektua ahalik eta gehien hobetzeko osasun mentalaren sektorerekiko.

Hurrengo elkarte hauek izango lirateke, batez ere, Euskal Herri mailako gure funtsezko elkarteak:

IZENA	PROBINTZIA	HELBURUA	LOGOA
Agifef	Gipuzkoa	Buruko osasun arazoak normalizatzea eta kalitatezko zerbitzuak aldarrikatzea, gizarte, lan, osasun eta etxebizitza arloetan.	
Asafef	Araba	Gaixotasun mentala duten pertsonek, familiakoek, profesionalek eta boluntarioek osatutako familia handi bat sortzea, kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzeko. Are gehiago, gizarteari osasun mentalaren garrantzia irakasteko eta sentibilizatzeko asmoa du.	
Avifef	Bizkaia	Laguntza psikiatriko eraginkorra lortzea da. Gaixotasun mentalen prebentzio, sendatze eta errehabilitazio sozialeko mailetan lan egiten dute bertan.	
Mentalia	Gipuzkoa	21.000 langile baino gehiago dituen Espainiar estatuko sektore sozioosasuneko konpainia liderra da. Arreta espezializatua eskaintzea dute helburu, hain zuzen ere adineko pertsonei eta arazo mentalak dituztenei.	

Espainiar estatuan ere hainbat **elkarte** daude **osasun mentala** zaintzen dutenak. Esate baterako, Madrilgo erkidegoan dagoen “Grupo cinco” elkartearen laguntza eskatuko genuke, behar izanez gero. Izan ere, gure aplikazioa estatu mailara bideratuta dago.



Osasun mentalean formazioa duten pertonekin ere elkartuko gara: psikologoak, psikiatrak... Izan ere, gure app-ak norberaren sentimenduak kanpora ateratzea du helburutzat, baina argi daukagu, benetako laguntza gai honen inguruan dakiten medikuek eskaintzen dutela eta hauekin batera hitzaldiak bezalako proiektuak egin nahiko genituzke, eta psikologiaren inguruko informazio espezifikoa jasoko genuke proiektuaren hobekuntzarako.

Bestalde, gai honen inguruko liburu, telebista saio... ugari dago.

Matt Haig eta Natasha Devon idazleek osasun mentalaren inguruko hainbat liburu idatzi dituzte, eta beraien ideiak baliatuko genituzke gure proiektuan ahalik eta eskaintzarik onena eskaini ahal izateko.

